



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/03/12



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

**2026ko URTARRILAREN 28AN BASABURUKO UDALAK
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2026ko urtarrilaren 28an, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaunandereak bildudira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia alkatearen lehendakari izapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Alaia Etayo, Iker Isiegas, Javier Auza eta Mikaela Elizalde.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeki ekin zaio.

GAIZERREDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

abenduaren 22ko ohiko batzarren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena, inork eragozpenik agertu ez duenez.

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/03/12

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

-2026/1 alkate ebazpena urtarilaren 2koa obra baimena oartzuz Marc Fernandezi Beruete 11. Poligonoko 43. Lursailean dagoen etxebizitzaren barruko eraberritzea egiteko.

-2026/2 alkate ebazpena urtarilaren 9koa onartuz Roberto Martín Fernandezi Apeztegiberriko eraikinaren bigarren pisuko erabilera anitzetako gela erabiltzea, 2026ko urtarilaren 10ean arratsaldeko 16etatik aurrera urtebetetze bat ospatzeko.

-2026/3 alkate ebazpena urtarilaren 9koa onartuz Basaburua MTB Klubari Apeztegiberriko eraikinaren bigarren pisuko erabilera anitzetako gela eta proiektorea erabiltzea, 2026ko urtarilaren 17an.

- 2026/4 alkate ebazpena urtarilaren 12koa esleituz Basaburuko Udaleko lehenengo pisuan dagoen etxebizitzaren alokairua Estela Fernandez Gutierrez, puntu gehien lortu dituen eskatzailea izanik

-2026/5 alkate ebazpena urtarilaren 12koa onartuz Gaztandegi Dorreak aurkeztutako eskaera eta baimena ematea Apeztegiberriko lehenengo pisuan dagoen erabilera anitzetako gela erabiltzeko, urtarilaren 13 eta 14an goizeko 9etatik arratsaldeko 17etara.

-2026/6 alkate ebazpena urtarilaren 16koa onartuz Casa Sasturain, bizitza egoitza eta zahartze-zentroaren proiektua Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Ministerioak sustatutako lurralde-eraldaketarako eta despopulazioaren aurkako borrokarako toki-erakundeek sustatutako proiektu berritzaileak finantzatzeko laguntzen deialdira aurkeztea.

- 2026/7 alkate ebazpena urtarilaren 20koa esleituz Basaburuko Udaleko lehenengo pisuan dagoen etxebizitzaren alokairua Mari Sol del Carmen Flores Cordoba, balizko errentadunen zerrendako bigarrena izanik.

-2026/8 alkate ebazpena urtarilaren 22koa onartuz Aralar Musika Eskolari Apeztegiberriko eraikinaren bigarren pisuko erabilera anitzetako gela erabiltzea, martxoaren 9an eta arratsaldeko 14:30etatik aurrera musika eskolako emanaldi bat burutzeko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte alkateak egindako ebazpenak.

3.- 2026. Urteko txantilla organikoa. Hasierako onespina.

Aurrekontuarekin batera onartu ohi da txantilla organikoa, aurreko batzarrean egin ez zenez, oraingoan aztertu eta hasierako onespina emateko gai zerrenda sartu dela azaltzen du alkateak.

2026. urteko txantilla honako lanpostuez osatua egongo lirake:

2026EKO PLANTILLA ORGANIKOA

ZENBAKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA	SARBIDEA	OSAGARRIAK	HIZKUNTZA PROFILA	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M.O. %28 L.O.	C1/EGA edobaliokidea	Jardunean





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
2026/03/12



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Egonkortze prozesua	%12 M.O. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Jardunean
03	Garbiketa zerbitzua	E	Egonkortze prozesua	%15 M.O., 31,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean
04	Garbiketa zerbitzua	E	Egonkortze prozesua	%15 M.O., %10,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposiziolehi aketa	%23,38 L.O.	C1/EGA edobaliokidea	Jardunean
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposiziolehi aketa	%12 M.O. %18,52 L.O.	C1/EGA edobaliokidea	Jardunean
07	Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola	D	Oposiziolehi aketa, egonkortze prozesua	%12 M.O. %8,35 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean

IZENEN ZERRENDA

FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	GRADUA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Elena Gaskue Jaunarena	Administraria	C	2000/03/28	4	%12, %28	Jardunean	%100

LAN KONTRATUDUN FINKOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Amaia Legarra Beunza	Haur eskolako zuzendaria	B	2008/07/28	%23,38	Jardunean	%100
Amaia Oloriz Satrustegi	Haur eskolako hezitzailea	C	2018/09/3	%12, %18,52	Jardunean	%100



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAYQ NT3K UFKZ 4CR9

2026-01-28 akta - SEFYCU 290902

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

11tik 3 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2026/03/12

M ^a Paz Etxarri Etxegia	Haur eskolakogarriketa	D	2017/11/02	%12, %8,35	Jardunean	%75,34
------------------------------------	---------------------------	---	------------	------------	-----------	--------

Begoña Arano Galarza	Garriketa	E	2024/12/26	%15 ,31,38.	Jardunean	%60,50
Aitor Arangoa Mariezcurrera	Garriketa	E	2025/01/02	%15 %10,76	Jardunean	%60,50
Oier Legarra Beunza	Zerbitzuanitzetak olangilea	D	2024/12/26	%12, %42	Jardunean	%100

BEHIN BEHINEKO LAN KONTRATUDUNAK

Ane Arraras Arangoa	Administraria	C
Jose Antonio Hernández Poblete	Garriketa	E
Nerea Mariezcurrera Ezkurra	Garriketa	E
Julen Beunza Arano	Hezitzailea	C

LAN KONTRATATUDUN MUGAGABEAK

Aintzane Andueza Zabalo	Haur Eskolako hezitzailea	C	2021/08/23	%12, %18,52	Jardunean	%100
Begoña Arano Galarza	Administraria	C	2018/10/17	%12, %3,28	Eszedentzian	%100

Bildutakoak aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute :

Hasiera batez onartzea Basaburuko Udaleko 2026. Urteko plantilla organikoa eta langileen zerrenda eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako Foru Legearen 235. Artikulua jarraituz.

4.- Kontribuzioan zergaren aukerako hobariak arautzen dituen ordenantza.Behin betiko onespena.

Alkateak adierazten du ordenantzari hasierako onespena urriaren 29ko batzarrean eman zitzaioa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen azaroaren 18an, hilabeteko jende aurreko epea urtarrilaren 7an bukatu zen. Epe horretan ez dira



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAYQ NT3K UFKZ 4CR9

2026-01-28 akta - SEFYCU 290902Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

11tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
2026/03/12

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

alegazioak aurkeztu hortaz eta Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko 1990/6 Foru Legearen 325 artikulua jarraituz behin betiko onespina ematea dagokio.

Ogasun batzordean aztertu ondoren hobariak aplikatzeko taula ontzat ematen dute bildutakoek eta kontribuzioa zergaren aukerako hobariak arautzen dituen ordenantza behin betikoz onartzen dute Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko 1990/6 Foru Legearen 325 artikulua jarraituz.

Erabaki hau eta ordenantzaren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute bildutakoek

5.- Udal Planaren ordenantzen 18,36,54,56 eta 60 artikuluen aldaketa. Behin betiko onespina.

Alkateak gogoratzen die bildutakoek urriaren 29ko batzarrean onartu zela Eraikuntza ordenantzaren artikulua batzuen aldaketa, indarrean egoteko jada udal plan berrian finkatu diren arau batzuk, hots planta bakarreko etxeak egiteko aukera, pertsianak jartzea eta beste...

Ordenantzen aldaketaren izapidetzea jarraituz eta hortaz **Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko 1990/6 Foru Legearen 325 artikulua jarraituz Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hasierako onespina**, azaroaren 18ko aldizkariak eta hilabeteko epea urtarilaren 7an bukatu zen. Epe horretan ez dira alegazioak aurkeztu hortaz behin betiko onespina ematea dagokio ordenantzen aldaketari.

Hortaz bildutakoek aho batez behin betikoz onartzen dute udal Planaren ordenantzen 18,36,54,56 eta 60 artikuluen aldaketa. Ordenantzaren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.

6.- Beramendiko 2. Poligonoko 134. Lursailerako udal planaren aldaketa. Behin behineko onespina.

Alkateak gogoratzen du udal planaren sustatzaileak helburu duela, 134. Lursailaren 38.11 m2 hiri izaera izatea, ondoren bereizi eta ondoko lursailera gehitzeko.

Udal planaren aldaketa honi hasierako onespina eman zitzaion urriaren 29ko batzarrean eta 233.Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, 2017/1 Legegintzako Foru Legearen 77 eta 72. Artikuluak jarraituz. Hilabeteko epean egon da espedientea jende aurrean eta ez dira alegazioak aurkeztu hortaz behin betiko onespina ematea dagokio prozedurari.

Hortaz bildutakoek ikusita 2017/1 Legegintzako Foru Legearen 77 eta 72. artikuluek arautzen dutena behin behinekoz onartzen dute Beramendiko 2.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/03/12



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

Poligonoko 134. Lursailerako udal planaren aldaketa 134. Lursailko 38.11 m2 birklasifikatzeko helburuarekin.

Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute bildutakoek.

7.- Haur eskolako hezitzaile zerrenda egiteko oinarri berrien onespena, aurreko prozedura bertan behera utziz.

Alkateak aipatzen du aurreko zerrendaren onespena egin ondoren eta interesdunek izen emateko epea bukatu baino lehen deialdian akatsen bat zegoela ohartu direla eta hortaz deialdia zuzendu beharra ikusi da bertan behera utzi aurrekoa deialdia berria onartuz eta prozedura berriro hasiz.

Deialdi berrian sartu diren aldaketak izan dira euskaraz egingo dela azterketa, zerrenda hau ez dela aurrekoaren gehigarria izanen baizik eta ordezkatzeko duela, hots aurreko zerrenda indargabetua geldituko da.

Aurreko deialdian izen eman zutenei abisatuko zaie deialdi berria atera behar dela eta hortaz berriro izen emate prozesua egin behar dutela.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Bertan behera uztea alde batetik haur eskolako hezitzaile zerrenda egiteko prozedura, oinarrietan akatsak daudela ikusita.

Oinarrien zuzenketa egin ondoren izapidetze berriari hasiera eman oinarri berrien onespenearekin eta erabaki hau oinarriekin batera Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

8.- Baso babeslearen proiektuaren bigarren fasearen onespena.

Alkateak azaltzen du baso babeslearen bigarren fase egiteko laguntza onartu duela Cederna Garalurrek PSTD programaren baitan, bigarren fase honekin bidea tokiz aldatuko zen basoa inguratuz eta haundituko zen egun egina dagoen parkearen azpiegitura.

Onartutako gastua eta laguntza kopuru berekoak izango dira eta horren kudeaketa egiteko hitzarmena sinatu da Cederna Garalurrekin proiektuaren bigarren fasearen gastua 67.460,65 eurokoa izanik, eta obra bukatu eta justifikatzeko epea 2026ko apirilaren 30a arte luzatuz. 2. Fase honen proiektuaren idazketa esleitu da modu zuzenean alkate ebazpen bidez Humus Sapiens S.L enpresari.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/03/12



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

Onartzea baso babeslearen proiektuaren 2 fase, onartzea proiektua gauzatuko duen diru laguntza arautuko duen eta Cederna Garalurrekin sinatutako hitzarmena.

Aurreko batzarrean bake epailearen hautaketa zintzilik gelditu zela azaltzen du alkateak eta ez da epe honetan inor aurkeztu, hortaz bildutakoek hautaketa zozketa bidez egitea onartzen dute.

Basaburuko bake epaile ordezkio izendatzea.

Alkateak gogoratzen die bildutakoei irailaren 24ko batzarrean izendatu zela Iraultza Gillen bake epaile ordezkio. Izendapen hau Nafarroako Auzitegi Nagusira bidali ondoren bertan adierazi zuten jada beste udalerrri bateko bake epaile izanik ezin zuela kargua hartu, hortaz urriko batzean izendapenak aurkezteko epe berria irekitzea adostu zuten.

Inork ez du eskaerarik aurkeztu hortaz eta 1995/3 Bake Epaileen araudiaren 6 eta 7 artikulua jarraituz zozketa bidez izendapena egitea erabaki dute bildutakoek. Hortaz eta 18 urtetik gorako eroldaren zerrenda aterata, 72. Zenbakia duen pertsona izendatuko dela adosten dute bildutakoek.

Zerrenda atera eta aztertzen hasi dira bildutakoek, justu 72. Pertsonak 70 urte baino gehiago ditu hortaz baztertzen da, bai hori bai hurrengo pertsona hortaz, baldintza guztiak betetzen duen hurrengo izendatzea erabaki dute bildutakoek, hots Amaia Arano Nagore. Hau ikusita eta 1995/3 Bake Epaileen araudiaren 7 artikulua jarraituz bildutakoek aho batez eta gehiengo osoz erabaki hau hartzen dute:

Izendatzea Basaburuko bakez epaile ordezkio bezala Amaia Arano Nagore 72821383W NAN zenbakiduna, Iruñean jaioa 1991ko urriaren 13an, ogibidez administraria eta Igoako y Natividad 17 A helbidean bizitzen dena.

Erabaki hau esleipendunari jakinarazi eta Nafarroako Auzitegi Nagusira.

Bukatzeko beste gai garrantzitsua dagoela onartzeko azaltzen du alkateak, hots eskolako ingurutzailerik egiteko Hezkuntza Departamentuak diruzlaguntzeko eskatu du batzarrak onartzea proiektua, behar den finantziarioa udalak hartuko duela beregain eta konpromezua obra ikasturte berria hasi baino lehen bukatzea eta eragozpenik ez izateak obrak egun 2025-2026 ikasturtean eskolaren erabilerekiko.

Bildutakoek onartzen dute hortaz gai zerrendan gai hau aztertzea:

Eskolako ingurutzailerik termikoaren proiektuaren onespena.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2026/03/12



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

Alkateak azaldu bezala enmendakina Hezkuntza Departamentuak kudeatuko du eta haiek dirulaguntza eman, kudeaketa hori egiteko hitzarmen bat sinatu behar da baina lehenik, Basaburuko udal batzarrak ondoren zehazten den erabakia hartu behar du Hezkuntza Departamentuak hala eskatua.

Basaburuko udal batzarrak onartzen du Oihanzabal eskola publikoarekoingurutzailetermikoarenproiektua, honengastua eta obra egiteko konpromezua. Obrari hasiera emateko, proiektuaren idazketa egin behar da eta horretarako prestatutako baldintza plegua onartzen da ere.

Obraren gastua 253.000 eurokoa (BEZ kanpo) izanen dela onartzen dute bildutakoek proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritza barne. Obra hau Hezkuntza Departamentuko enmiendakinarekin finantziatuko da eta kopuru horretara iristen ez den gastua udalak bere gain hartuko du 2026ko aurrekontuan partida sortuz.

Konpromezua adierazten dute ere bildutakoek obra honek ez duela 2026-2027 ikasturtearen hasiera oztopatuko eta 2026ko urriaren 21a baino lehen bukatu eta justifikatua egongo dela.

9.- Mozioak.

Ez daude.

10. - Batzordeen informazioa.

Hezkuntza Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Haur eskolako ate irekien jardunaldia otsailaren 9an izango da. Aurre matrikula epea otsailaren 23an hasiko da.

Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Korrikaren aurkezpena egin zen urtarilaren 22an Larraintzarko Bentan Basabururik pasatzen ez denez bi ekitaldi egingo dira bat haurrekin, korrika txikia egingo dute eskolatik abiatuz eta bigarren ekitaldia mago baten ikuskizuna izango da.

Otsailaren 1ean beste bilera bat egingo da.

Euskara Batzordean ez da maiz biltzen eta bilera ez dira eraginkorrak, hortaz erabaki da eskualdeko ordezkariekin hilabetero bai bilera egitea eta Euskara Batzordea indartu arte bere horretan uztea, bilerarik egin gabe.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/03/12



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

Euskara Mankomunitatetik ordaintzen dira Larraintzarko eskolan egiten diren ekintza batzuk, horien artean bertso eskola. Kontua da parte hartzen dutela bertan Lantz eta Atetzko haurrak ere eta udalerrri hauek ez daude mankomunitateak sartuak, hortaz ikasle hauek egitasmo hori dohainik egiten dute.

Eskualdeko euskara teknikariaren proposamena da haur hauek ordaintzea ere. Bildutakoek egoera hau mankomunitatea eta aipatutako udalek hitz egin beharreko gaia dela uste dute. Udalek ordaindu beharko lukete haien udalerriko umeen kostea mankomunitatearekin hitzarmen baten bidez. Familiei eskatzea legearen kontrakoa da.

Nafarroa Oinez 2026 ekitaldirako laguntza ekonomikoa emateko eskaera bidali dute. Euskara Batzordean ez da onartu, ekimen pribatua baita.

Euskara teknikariarekin izandako bileran ideia bezala atera zen ostatueta euskara hutsean hitz egiteko ordutegi bat jartze euskara sustatzeko. Bildutakoek zaila ikusten dute burutzeko, ostatuak esku pribatueta baitaude.

Maiatzak 24an bertso eskolen topaketa burutuko da Jaunsaratsen, Lankuk antolatua.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

MTB Basaburua taldeak bi eskaera aurkeztu ditu udalean eta hemendik Kirol Batzordera bideratu dira. Kasu honetan ikusita zer eskatzen duen kirol batzordeak ebazteko eskumenik ez duela ondorioztatu du eta hortaz batzarrera aurkezten dira bi eskaerak aztertu eta haien inguruan erabakiak hartzeko.

Lehenengo eskaeran adierazten duudaleko biltegi bat beharko lukeela taldea haien tresneria eta beste gordetzeko, polikiroldegiko argi kuadroaren kopiak ere eskatzen dituzte eta polikiroldegia erabilera hilabeteko hirugarren larunbatean eta iraila eta urrian ostegunetan.

Bigarren eskaeran adierazten du berriro ere taldeak haien tresneriak gordetzeko espazioa behar duela eta erabilera hori tasen ordainketetan salbuetsia egotea.

Bildutakoek gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, hau ondorioztatzen dute:

- Udalak ez duela biltegi edo beste espaziorik Basaburua MTB taldeari uzteko haien tresneria eta beste gordetzeko.
- Polikiroldegiko argi indarraren kuadroaren giltzen kopia ezin eman zaiola udaleko eraikina izanik udalaren erantzukizuna delako haren mantenimendua eta zerbait gertatuko balitz aseguruan ez litzakeelako sartuko. Erabilera horrek gainera beste ondorio batzuk ditu, garbiketa lanekin lotutakoak adibidez, egun dauden langileen





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2026/03/12



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

lanaldia luzatu beharko litzakeelako beste erabiltzaileendako eraikina garbitu beharko balute.

- Bestetik udalak ezin gela bat utzi erabilera jarraitu bat burutzeko, hainbat jarduera burutzen diren gelak dira eta erabiltzaile gehiagori irekiak egin behar dira.

Hortaz adieraziko zaio ez biltegi ez polikiroldegiko giltza, ez udaleko gela erabiltzeko baimenik ez duela izango, aldiz bai polikiroldegia hilabeteko hirugarren larunbatean erabiltzeko eta iraila eta urrian ostegunetan beti ere lehenik argi indarraren kuadroaren giltzak zerbitzu anitzetako langilerekin kudeatuz, gainera ere orain arte gelaren bat behar dutenean eskatu ahal diotela udalari eta aldiro aldiro ebatziko dela baimena eta honen baldintzak.

Berdintasun Batzordea. Mikaela Elizalde ematen du informazioa.

III Berdintasun plana egin dago eta orain onartzeko aurkezpen bilera egin nahi du teknikariak, falta da data finkatzea horretarako.

Otsailaren 2an eta Larraintzaren emakume politikoen forua egingo da

11.- Informazio orokorra.

- Bizikletekin ibiltzeko bideetako bat Arraratsko lursail pribatu batekin pasatzen da. Jabeek kexa adierazi dute eta Basaburua MTB elkarteari jakinarazi hortaz behin behineko ibilbidea prestatuko dute bertatik ez pasatzeko.

-Baso babeslearen 2. Fasea egiteko proiektua onartu ondoren obra egiteko esleitu da proiektua teknikoaren idazketa eta obraren zati baten esleipena. Kopuru txikiak izanik biak hala biak eta kontratu publikoen legeak hala onartzen duenez, modu zuzenean esleituko dira biak.

-Cederna Garalurrek proiektu bat martxan jarri du pista eta bideak digitalizatzeko. Basaburuko udalerrian aukeratuak izan diren bideak programa horretan sartzeko izan dira, herriak lotzen dituen senda sarea, Jauntsaratsko haritzen ibilbidea, kañadako bidea eta Basaburutik pasatzen den Euroveloren zatia.

- Bilera izan du alkateak Aizarotzko kontzejuko alkatea eta Ingurugiro Departamentuko arduradunekin, egun Aizarotzko epaitzak kudeatzeko udalak sinatua zuen hitzarmena kontzejuaren izenera aldatzeko.

- Eguneko egoitza ikustera etorri ziren Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariak eta hitz egin zuten funtzionamenduari buruz eta beste..





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2026/03/12

- MITECO programako laguntzetan eskatu da, eguneko egoitzan egiten diren tailerrak, etxeetako jantoki zerbitzua, bankalekin baratza egiteko azpiegiturak eta beste.. ebazpenaren esperoan gelditzen da orain udala.
- Hirigintza Batzordean, onartu ziren hiru obra baimena, lehengoa Itsasoko 496. Lursailean etxebizitza egiteko eta beste biak Udabe eta Beramendin erabilera anitzetako eraikinak egiteko.

12. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:42 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/03/13

